

3. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

3.1. Baliabide material eta teknologikoak

Gure produktua merkatura atera dezagun, lehenik eta behin pantaila bat behar dugu. Pantaila hori beharrezkoa da aplikazioa garatzeko eta gure gailu fisikoa sortzeko.

Horretarako, garapen teknikoa eta diseinua behar dira, eta horrek inbertsio ekonomikoa eskatzen du.

Era berean, produktua fabrikatzeko material ugari behar ditugu.

Material horien erosketa gure lehen gastu garrantzitsuenetako bat izango da, beraz, aurrekontu ondo planifikatuta izatea oinarritzkoa da.

3.2. Baliabide ekonomikoak / finantza-baliabideak

Proiektuaren hasierako faseetan, guk jarriko dugu dirua, hau da, hasierako inbertsio propioa erabiliko dugu. Honek gure konpromisoa eta arriskua partekatzen dugula erakusten du.

Horrez gain, dirulaguntzak lortzea oso lagungarria egingo zaigu, bai erakunde publikoetatik, bai ekintzaileen laguntza programetatik.

Gastu gehiago kubritzeko edo produkzioa handitzeko, banku-mailegua eskatuko dugu. Mailegu horrekin gure aplikazioaren bertsio hobe bat egin ahal izango dugu eta ekoizpena handitu.

Gure produktua saltzen hasten garen heinean, irabaziak erabiliko ditugu bankuari zorra pixkanaka itzultzeko. Horrek finantza-kudeaketa arduratsua bermatzen du eta arriskuak gutxitzen lagundu.

3.3. Beste baliabide orokorrak

Gure produktua ezagutarazteko publizitatea eta marketina ezinbestekoa da. Horrek barne hartu dezake sare sozialetako iragarkiak, kartelak, bideoak eta bestelako kanpainak, gure produktua jende gehiagorengana iristeko.

Era berean, enpresa batek bere baliabideak hobetu eta zaindu behar ditu: dirua, tresnak, langileak eta denbora. Baliabide horiek ondo kudeatuz gero, enpresak etorkizunean aurrera egiteko eta ez bukatzeko aukera du.